

GOBERNU BATZARRA

2015. 10. 13

Alkatea:

Olatz Peón Ormazabal

Zinegotziak:

**Patxi Amantegi Zubiria
Nerea Letamendia Belloso
Jokin Azkue Arrastoa
Iñigo Alonso Sarasibar**

Beh. Beh. Idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea

Beh. Beh. Kontuhartzailea:

Paulino Alonso Eraso

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamabosteko urriaren hamahiruan 08:00etan Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.

1.- Aurreko akta onartzea.

2.- Gazte eguna. Diru laguntza.

3.- 2015eko elkarteen egiturarako diru-laguntzak.

4.- Eskola kiroleko 2014-2015 diru-laguntzak.

5.- 29/2015 zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2015eko urriaren 5ean egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Gazte eguna. Diru laguntza.

Tolosako Gazte Asanbladak urriaren 15-16-17an Gazteburua izeneko ekimena antolatzen proposamena helarazi dio udalari.

Hori ikusirik, Gobernu Batzar honek, aho batez, alkateak emandako ahalmenez baliatuta eta Kultura, Festak eta Gazteria Batzordeak egin duen diktamenarekin bat etorritik,

ERABAKI DU

LEHENA.- Tolosako Gazte Asanbladari 2.500 euroko diru laguntza ematea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kultura, Festak eta Gazteria departamentuari eta Tolosako Gazte Asanbladari.

3.- 2015ko elkarten egiturarako diru-laguntzak.

Kirol teknikariak egindako txostena aztertu da, zein irizpide jarraitu dituen eta nola banatu dituen ohizko diru laguntzak ikusteko. Diru laguntza hauek Tolosako kirol elkarte eta taldeen egituraren garapenerako bideratuak daude.

Beraz, gaia aztertu ondoren eta Kirol batzordeak jaulkitako diktamenarekin bat etorriz, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- 2015eko ohizko diru laguntza hauek onartzea:

ELKARTEAK	DIRU-LAGUNTZA 2015
Tolosaldea Usabal Igeri Kirol taldea	10.300,00 €
Club Deportivo Tolosaldea Arraun Oriá	12.420,00 €
Tolosa Club de Futbol	40.475,00 €
Tolosako Adiskideok Kirol Elkartea	10.800,00 €
Oriako Txirrindulari Eskola	4.000,00 €
Beotibar Club Deportivo	2.745,00 €
Club Deportivo Igarondo Urpekoak	3.870,00 €
Laskorain Guraso Elkartea	3.410,00 €
Colegio RR PP Escolapios	1.040,00 €
Samaniego – Orixe kirol kluba	1.270,00 €
Oargi Mendi Elkartea (mahai tenisa)	2.160,00 €
Club Alpino Uzturre (fondoko eskia)	2.740,00 €
GUZTIRA	95.230,00 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kirol departamentuari eta interesatuei.

4.- Eskola kiroletako 2014-15ko diru-laguntzak.

Eskola kiroletako aurtengo diru laguntzei buruz Kirol batzordeak egin duen proposamenarekin bat etorriz, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Ondoren aipatzen diren ikastetxeei 2014-2015 ikasturtean egin dituzten kirol ekintzengatik diru laguntza hauek ematea:

LASKORAIN	9.730 €
HIRUKIDE JESUITINAS	6,710 €
HIRUKIDE ESKOLAPIOAK	1.480 €
SAMANIEGO-ORIXE	12.075 €
GUZTIRA	29.995 €

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari, Kirol departamentuari eta interesatuei.

5- 29/2015 zenbakia duen faktura- zerrenda.

Kontuhartzaitzak **29/2015** faktura zerrenda aurkeztu du; **203.975,26 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- **29/2015** faktura zerrenda onartzea.

BIGARRENA.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Gai zerrendatik aparte eta daukan premia kontuan izanik, ondoren aipatzen den gaia tratatzen da:

Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta, ondorengo onartu du

ERAKUNDE ADIERAZPENA

<p>FRANKISMOAREN KRIMENEN AURKAKO ERAKUNDE ADIERAZPENA</p> <p>Datorren Urriaren 14an, frankismoaren krimenen aurkako salaketak medio, lehendabiziko deklarazioak izango dira Donostiako Epaitegian, Argentinako Servini Epaileak eskaera ofiziala luzatu du jurisdikzio internazionalaren bidetik, eta bi gipuzkoar izango dira deklaritzen: Pedro Estonba, 1971ean 22 egunez torturatua izan zena, eta Aitzol Azpiroz, bere osaba-aitabisaba Jose Ariztimuño "Aitzol" apaizaren izenean, zein matxinatu faxistek erail zuten 1936-ko urrian, beste 196 lagunekin batera, Hernaniko hilerrian.</p> <p>Tolosako Udalak biktima hauei eta beraien senide guztiei bere elkartasuna adierazten die Egia guztia ager eta Justizia osoa egin dadin 40 urteko diktadurapean frankistek gizateriaren kontra egindako krimenekin. Memoria osoa nahi baitugu berreskuratu, Bakea eta Elkarbizitza behar bezala bideratzeko.</p> <p>Halaber, deklarazio egunean gipuzkoar guztiei deia luzatzen diegu bere elkartasuna adierazteko modu baketsuan Epaitegiaren aurrean eguerdiko 12:00etan.</p>	<p>DECLARACIÓN INSTITUCIONAL CONTRA LOS CRÍMENES DEL FRANQUISMO</p> <p>El próximo 14 de octubre comparecerán por primera vez en los Juzgados de Donostia dos gipuzcoanos, gracias a las denuncias presentadas contra los crímenes del franquismo ante la Justicia argentina. La jueza Servini remitió los pertinentes exhortos oficiales ateniéndose a la jurisdicción internacional, y declararán Pedro Estonba, torturado durante 22 días en 1971; y Aitzol Azpiroz, sobrino-nieto de José Ariztimuño "Aitzol", sacerdote fusilado por los sublevados fascistas en octubre de 1936 en el cementerio de Hernani junto con otras 196 personas.</p> <p>El Ayuntamiento de Tolosa expresa su apoyo y solidaridad con estas víctimas y sus familiares, para que aflore toda la Verdad y se haga toda la Justicia con los crímenes contra la humanidad cometidos bajo la dictadura franquista. Porque deseamos recuperar toda la Memoria para lograr una verdadera Paz y Convivencia.</p> <p>Así mismo, llamamos a la población guipuzcoana a que el día de la declaración a las 12:00 del mediodía ante el Juzgado manifiesten pacíficamente su apoyo y solidaridad con todas las víctimas del franquismo.</p>
---	--

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

Beh. Beh. IDAZKARIA